

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2022ko urriaren 27a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Iburguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2022. urterako plantilla organikoaren aldaketa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2022. urterako lanpostu-zerrendaren aldaketak.
- 3.- Berrestea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkarteko estatutuak aldatzeko erabakia.

- 4.- Onartzea, egoki bada, 2022ko Euskaraldiari buruzko adierazpen instituzionala
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2022. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposatzen den aldaketa hau da: trikiti, pandero eta bestelakoen irakasle-lanpostuaren sailkapen profesionaleko taldea aldatzea, A2 taldetik C1 taldera pasatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko urriaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Udalaren 2022. urterako plantilla organikoan aldaketa hau egitea: trikiti, pandero eta bestelakoen irakasle-lanpostuaren sailkapen profesionaleko taldea aldatzea, A2 taldetik C1 taldera pasatuz.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2022. URTERAKO LANPOSTU-ZERRENDAREN ALDAKETAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposatzen diren aldaketak hauek dira:

- Trikiti, pandero eta bestelakoen irakasle-lanpostuaren izena aldatzea, lanpostu horren sailkapen profesionaleko taldea aldatzea, A2 taldetik C1 taldera pasatuz, eta lanpostu horretan sartzeko eskatzen den titulazioa hau izango dela ezartzea: batxilergoa, titulu teknikoa edo baliokidea eta irakaskuntzarako gaikuntza izatea trikitirako eta panderorako.
- Kirol- eta gazteria-teknikariaren lanpostura sartzeko eskatzen den titulazioa hau izango dela ezartzea: jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako gradua edo baliokidea.
- Orioko musika eskola publikoko irakasleen lanpostuen zerrendan 2022-2023 ikasturteko lanaldiaren dedikazio-ehunekoa sartzeta.
- 6.3.1, 6.3.2 eta 6.3.3 kodeak dituzten garbitzaile-lanpostuetan lanaldiaren dedikazio-ehunekoa %77,78koa dela ezartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko urriaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**

ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Udalaren 2022. urterako lanpostu-zerrendaren aldaketak, goian jasota dauden bezalaxe.

3.- BERRESTEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ESTATUTUAK ALDATZEKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Urola Kostako Udal Elkarteko estatutuak aldatzeko egindako tramitazioa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

BERRESTEA Urola Kostako Udal Elkarteko estatutuak aldatzeko erabakia. Aldaketak estatutuen 18. artikuluari eragiten dio. Artikulu hori, hemendik aurrera, honela idatzita agertuko da:

«Udal Elkarteko Idazkaritza eta Kontu-hartzaitza eginkizunak gaikuntza nazionalako funtzionarioek beteko dituzte, araudi aplikagarriaren arabera».

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2022KO EUSKARALDIARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

EUSKARALDIA 2022. UDALAREN ADIERAZPENA

Euskaraldiaren helburu nagusia gure hizkuntza-ohiturak aldatzea da eta, hartara, euskararen erabilera handitzea jende eta esparru gehiagotara zabalduz. Euskal Herri osoan egiten da Euskaraldiaren ariketa soziala eta Orion oso arrakastatsuak izan dira lehen bi edizioak, 2018 eta 2020koak: 1.600 oriotar baino gehiagok eta herriko 73 entitatek parte hartu zuten.

Euskaraldiaren hirugarren edizioa 2022ko azaroaren 18tik abendua ren 2ra bitartean izango da, HITZEZ EKITEKO GARAIA lelopean, eta bi helburu nagusi izango ditu: batetik, urrats berriak ematea parte hartzen duten norbanakoek eta entitateek euskara gehiago erabiltzeko; eta, bestetik, parte hartzea zabaltzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea.

Euskaraldiaren xedeak bat datoz Orioko Udalaren helburu estrategikoekin: Euskaraldia tresna berritzailea da, lankidetzan oinarritua, herritarren hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabileran urrats bat aurrera egiteko. Gainera,

aukera paregabea ematen digu Udalaren euskara sustatzeko politika indartu eta sakontzeko, aurtengo martxoan udalbatzarrak aho batez onartutako «Euskara Plana 2022-2032» agirian jasotakoaren ildotik.

Orioko Udalak, beraz, bere aletxoak jarri nahi du ekimenak arrakasta izan dezan eta, horrenbestez, hau adierazi nahi du:

- Orioko Udalak bat egiten du Euskaraldiarekin eta gogoz sustatuko du ekimena.*
- Orioko Udalak konpromisoa hartzen du Euskaraldiaren hamabost eguneko ariketa egiteko, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra, eredugarri jokatzuz euskararen erabilerari dagokionez. Udala saiatuko da ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatzen arduradun politikoen eta langileen artean eta konpromisoa hartzen du udal barruko ariguneak osatzeko, babesteko eta sustatzeko.*
- Orioko Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatzen ditu Euskaraldian parte hartzera, bai indibidualki izena emanaz eta bai ariguneak osatuz, HITZEZ EKITEKO GARAIA da-eta.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2022ko EUSKARALDIari buruzko adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,